

PRODUKTUEN SEGURTASUNA

*Sakelako
telefonoak*

ASMATU
JOPUNTUAN. **ZURE**
SEGURTASUNA
DAGO JOKOAN

*Ikaslearen
Koaderno*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DIPUTACIÓN FORAL DEL VALLE DE Euzkadi



COMISIÓN EUROPEA

Kontsumotzailearen Nafarretako SARETA Europako Kontsumotzailearen Eskubide Akordioaren aldi. Zerbitzu hartzeko Autonomia Erdiakal hartzen duke parte. (Katalunian, Asturias, Valentziako Komunitatea, Galizia, Gaztela-Mantxa, Euzkadi Autonomia Erdiakal, Euzkadi, Madril, Aragón, Gaztela eta Leioa, Eritria, Kanariar eta Kanariar) eta bestelakok (España, Portugal, Italia, Grezia eta Frantzia). Ogasun eta Kontsumoko Ministerioaren (Kontsumoko Institutu Nazionala eta Merkataritza, Kultura eta Kirolko Ministerioaren (Europako proiektuei) Zuzendaritzaletze Nazionala) laguntza jaso da.



1. **Sakelako telefonoek erradiazioak igortzen dituzte eta, erradiazio txikiak izan arren, gorputzetik oso gertu egoten dira. Sakelako telefonoa maiz erabiltzen baduzu, hobe duzu aurikular egokituak edo esku gabeko sistemak erabiltzea, telefonoa bera burutik eta gorputzetik urrunduta hitz egin ahal izateko.**
2. **Itxaronaldian ere erradiazioak igortzen ditu telefonoak, baina txikiagoak dira. Saia zaitetz beti gorputzari itsatsita ez eramaten, eta itzali ezazu sakelako telefonoa gaezan eta deirik espero ez duzunean.**
3. **Ez ezazu telefonoa hedapen baxua daukagunean erabil. Sakelakoak, seinaletik urruti dagoenean, igortzearen potentzia areagotzen du.**
4. **Zenbaki bat markatu eta dei bat egiten denean igortzen du sakelako telefonoak erradiazio potentziarik handiena, alegia, terminalak konexioa finkatzen duen bitartean. Komeni zaizu segundo batzuk itxarotea telefonoa belarrira gerturatu aurretik. Ez ezazu mugikorra bihotzaren parean eraman, ez eta fraketako poltsikoetan izterondoan ere. Hobe duzu prebenitzea.**
5. **Sakelakoa ez da jostailu bat. Ez da komeni haur txikiek sakelako telefonorik erabiltzea, erradiazioen hartzaille sentikorrenak beraiek dira-eta.**
6. **Ez ezazu sakelako telefonoa edozein motako ibilgailuren bat gidatzen diharduzunean erabil, ez eta esku gabeko sistema edukita ere. Berriketak, zenbakia markatzeak edo dei bat jasotzeak eskatzen duen arretak distrakzioa eragin, arau-hausteak areagotu eta istripu arriskuak biderkatzen ditu.**
7. **Bete itzazu ospitale edota hegazkinetan sakelako telefonoak erabiltzeko ezartzen diren murrizketak eta debekuak. Murrizketa hauek sakelako telefonoen erabilerak medikuntza tresnetan sor ditzakeen interferentziak saihesteko dira, gaixoentzako arriskutsuak izan daitezke-eta. Halaber, ez duzu sakelako telefonoa hegazkinetan erabili behar, hegazkinaren nabigazio sistemetan interferentziak sor ditzakeelako.**
8. **Saia zaitetz dei ahalik eta laburrenak egiten. Zure osasunaren eta zure poltsikoaren onerako.**
9. **Taupada-markagailua ezarrita badaukazu, taupadak eragiten dituen gailutik urrutira eduki behar duzu sakelako telefonoa.**
10. **Sakelako bat erosterakoan, erradiazioen eragina gutxitzeko, erradiazio baxuko modeloa aukeratzea komeni da.**

AURKIBIDEA

1. HASTEKO	>>> 1	4. DENBORA-PASAK	>>> 7
2. SAKELAKO TELEFONOARI BURUZ		5. DENBORA-PASEN SOLUZIOAK	>>> 10
MUSIKATZEN	>>> 1	6. UMORE GRAFIKOA	>>> 11
3. JARDUERAK	>>> 2	ERANSKINA	>>> 12

Argitaratzailea: Kontsumitzailearen Hezkuntza Sarea
<http://www.infoconsumo.es/eecred>

Egileak:

Nieves Álvarez Martín
 Laguntzaileak

Leticia Ortíz Bedia, M^a del Pilar González Echezarreta,
 Ana Vallejo Echezarreta, Amaia Saenz, Ainhoa Sanz,
 Nuria Vitoria

Diseinua eta maketazioa:

M^a Isabel Gómez Bedia
 M^a Luisa Lavín Solana

Ale-kopurua:

Autonomia Erkidego bakoitzerako koordinazioa:

Gonzalo Sánchez Moreno (Kantabria)
 Rafael González del Busto (Asturias)
 M^a José López Ródenas (Valentziako Erkidegoa)
 Esther Álvarez Fernández (Galizia)
 Alejandro Salcedo Aznal (Gaztela-Mantxa)
 Arrate Martínez de Guereñu (Euskal Herria)
 José M^a Iglesias Sánchez (Extremadura)
 Susana Gil (Madril)
 Francisca Pérez Jiménez (Aragoi)
 Carmen Herrero Álvarez (Gaztela eta Leon)
 Susana Conde Escorihuela (Errioxa)
 Luis Domínguez Rodríguez (Kanariak)
 Julià Guimerá Gargallo (Katalunia)

Lege Gordailua:

Inprimaketa: J. Martínez S.L.

1. HASTEKO

Sakelako telefonorik al duzu?, zure lagunek sakelako telefonorik al dute?, arazoren bat ematen al dizu?, non eramaten duzu sakelako telefonoa?, bere erabilerari buruzko dudarik al duzu?, zenbat denbora hitz egin ohi duzu telefonoz?, sakelako telefonoak gaizki erabiltzeak dituen balizko arriskuak ezagutzen al dituzu?

Galdera asko? Baliteke, baina... erantzun guztiak ezagutzen al dituzu? Batzuk errazak direla ematen du, baina... benetan horrela al dira? Kasu hauetan eta antzeko beste batzuetan, erantzun zuzena ez baldin baduzu aurkitzen, emaitza hasieran iruditu ahal zaizuna baino larriagoa izango den arazoa izan daiteke. Horregatik, informazioa baldin baduzu, saihestu ahal izango duzu. Gainera, noizbait sakelako telefonoa ikasteko gaia izan zitekeela pentsatuko al zenuen? Ez, ezta? Bada, ikus dezakezunez, bada. Hori dela-eta, arreta jar dezazun eta koaderno honetako jarduera guztiak eta ikasgelan proposatzen dizkizutenak egin ditzazun interesgarria izan daiteke. Azkenik, ziurtasun osoz, horiei eta bestelako galdera batzuei erantzun ahal izango diezu, hainbat bitxikeria ezagutuko dituzu, pentsatu gabe zerbaitegin baino lehen prebenitu ahal izango duzu eta informatuta dagoen pertsona izango zara.

2. SAKELAKO TELEFONOARI BURUZ MUSIKATZEN

Koaderno honetako azkeneko orriari begiratu al diozu? Ez baduzu begiratu, egin orain. «Sakelako telefonoaren dekalogoia» irakurri al duzu? Berriz ere irakur ezazu lagunekin batera, hausnarketa egin bakarrik edo taldean. Dena argi eta garbi al duzu? Bada, orain, konpositorea zarela eta sakelako telefonoari buruz hitz egiten duen abesti baten letra eta musika egiteko agindu dizutela pentsatu behar duzu. Irakurri duzunaren antzeko letra asmatu beharko duzu, zure hitz egiteko moduari, zure estiloari egokitzen diozula; aukeratu erritmo bat (rap, rock, pop...) gehien gustatzen zaizuna. Ondoren, bakarrik edo zure lagunekin, maketa bat grabatu beharko duzu, ausartzen al zara? Gure web orrian begiratzen baldin baduzu horrekin egin dezakezuna jakin ahal izango duzu.

www.infoconsumo.es/dianaseguridad



3. JARDUERAK

1. FITXA: «GURE SAKELAKO TELEFONOA ZUZEN ERABILTZEN AL DUGU?»

Sakelako telefonoari ematen dioten erabilerari buruzko ikerketa-lana egin beharko dugu; sakelako telefonoa ongi erabiltzen duzuela uste al duzue?, are gehiago, zuen ikastetxean sakelako telefonoa behar bezala erabiltzen dutela uste al duzue?, horixe da ikertzen saiatuko garena.

Ikerketa hori egiteko koaderno honetako azkeneko orrian dagoen inkesta erabili ahal duzue.

Inkesta bakoitzari banaka erantzun behar diote. Taldeka lan egin dezakezue, horrela, talde bakoitzak ikastetxeko hainbat ikasle elkarrizketatu beharko du (adibidez, talde bakoitzak 10 eta 15 bitarteko ikasle).

Beharrezkoa den informazioa eskuratu ondoren, datuak tabulatu eta sakelako telefonoari ematen dioten erabilerari buruzko ondorioak aterako dituzue.

2. FITXA: «TESTU-MEZUAK (SMS) PRENTSAN ETA TELEBISTAN AZTERTUKO DITUGU»

A AUKERA: TELEBISTA

Jarduera honen helburua telebistan testu-mezuen inguruan mugitzen den negozioa arretaz ikustea eta tranpa horretan erortzea saihestu dezazuen da.

Horretarako telebistan ematen dituzten eta SMS bidaltzearen bidez hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten mota horretako iragarkiak aztertu ahal dituzue. Jarduera hau egiteko modua oso erraza da: telebistan ematen dutena (aste bateko eta ordu-tarte berean 4 orduz jarraian), hiru telebista-kate ezberdinen edukia aztertu beharko duzue. Ondoren, ikusiko duzue eta fitxa hau osatu beharko duzue.

	1. KATEA	2. KATEA	3. KATEA
<i>Aztertutako ordu kopurua</i>			
<i>Ordu-tartea</i>			
<i>Eman duten iragarki kopurua</i>			
<i>Eman duten publizitatearen denbora osoa</i>			
<i>Zer zerbitzu eskaintzen dituzte eta zein proportziotan? Ad. Chat, melodiak, lehiaketak...</i>			
<i>Zerbitzua ematen duen enpresa zenbat iragarkitan identifikatzen da?</i>			
<i>Zenbatetan biltzen dute zerbitzuaren bateragarritasuna sakelako telefonoaren modeloarekin?</i>			
<i>Zenbatetan ematen dute mezuaren kostuaren berri? BEZa barne baldin badago zehazten al dute?</i>			
<i>Mezuaren kostua jakinarazten duten letraren neurria nolakoa da?</i>			
<i>Eman dituzten iragarki guztietara mezuak bidaltzen baldin badituzte, zein izango da kostu osoa?</i>			

Datuak bildu ondoren, aztertu behar dituzue eta ikaskideei jakinarazi behar dizkiezue ikasgelan eztabaida sortuko duzuela. Eztabaida hori animatzeko hainbat galdera proposatu nahi dizuegu:

- Ikasgelako zenbat pertsonen telebistan iragarritako testu-mezu bat (SMS) bidali dute?
- Zenbat pertsonen ez dute jaso iragarkian eskaintzen zuten zerbitzua? Ad. Melodia bat jasotzeko mezua bidali dute baina hori ez da inoiz iritsi.
- Zer egin behar dute zerbitzua jaso ez dutenean?
- Erreklamazioa nola egin dezakete?



B AUKERA: PRENTSA

Hemen egiten errazena den jarduera dugu, baina, halere, oso interesgarria da. Nabaria da prentsak, eta batez ere aldizkariak, gero eta tarte handiagoa eskaintzen diotela sakelako telefonoan jartzeko logo eta melodiak iragartzeari, negozio horrek gero eta diru gehiago mugitzen du.

Analisia egiteko, hala banaka nola taldeka egingo dugu. Banaka ahalik eta aldizkari gehien bilatu beharko dituzue, zuen etxeak iturri ona izan daitezke. Aldizkari guztiak ikasgelara eraman ondoren, taldean lan egin dezakegu. Horrela, aztertzen dituzten gaien eta zuzenduta dauden jendearen arabera sailkatuko ditugu.

Ondoren, honako alderdiei begiratuko diegu:

ASPEKTUAK
● Aldizkari bakoitzak iragarki-mota honi eskaintzen dion tarteak.
● Aldizkariaren barruan iragarki horiek dauden tokia.
● Horietan agertzen diren logo eta letren neurria.
● Deitzeko zenbakien aurrezenbakia (806 ez den baten bat al dago?).
● Deiarene edo mezuaren kostua azaltzen duten, eta horrela baldin bada, aski argi azalduta al dago?, ongi ikusten den leku batean al dago?
● Zerbitzu horien erabilerari buruzko oharraren bat al dago?
● Beharra izanez gero jo dezakegun helbide edo enpresaren erreferentzia-zenbakiren bat al dago?

Informazio guztia bilduta dugunean, hauei bezalako kontuei buruzko ondorioak atera ditzakegu:

● Gaur egun gai honen inguruko dagoen iragarki kopurua.
● Oro har, nori zuzenduta dago.
● Horretan ematen duten informazio-mota.
● Letra txikia, besteak beste.
● Gaiari buruzko eztabaida txikia planteatzea.

3. FITXA : «SAKELAKO TELEFONOARI BURUZKO INKESTA»

Jarduera honen helburua sakelako telefonoa nola erabiltzen duten eta ematen dioten erabilerari ezagut dezazuen eta horri buruzko informazioa eskura dezazuen da.

Horretarako taldeka lan egingo duzue eta ikasten duzuen ikastetxean honako inkesta banatuko duzue (eskolako mailak taldeka banatu ahal dituzue, horrela, ahalik eta ikasle gehien elkarrizketatzeko aukera izango duzue). Horrela, sakelako telefonoari eta bere erabilerari buruzko datuak estatistikoki eskuratu ditzakezue.



INKESTA

Adina: Sexua: Hezkuntza maila:

1.- Zenbat sakelako telefono dituzu?

- Bat Lau
 Bi Hiru
 Bost edo gehiago

2.- Zer tarifa duzu?

- Aurre-ordainketa Kontratua

3.- Zure ustez, sakelako telefonoa erostean zer da garrantzitsuena?

- Marka Salneurria
 Diseinua Bateria
 Mezuak Akzesorioak
 Neurria eta pisua
 Soinuaren kalitatea
 Bestelakoak...

4.- Zure sakelako telefonoa zein maiztasunez erabiltzen duzu?

- Hilabetean behin edo birritan
 Astean behin
 Egunean behin
 Egunean 2 edo 5 aldiz
 Egunean 5 edo 10 aldiz
 Egunean 11 edo 20 aldiz
 Egunean 21 aldiz edo gehiago

5.- Zenbat gastatzen duzu hileko?

- 0 - 22 euro 67- 87 euro
 23 - 44 euro 88 - 100 euro
 45 - 66 euro 100 euro baino gehiago

6.- Sakelako telefonoaren zein funtzio erabiltzen duzu gehien?

- Deiak Iratzargailua
 Mezuak bidaltzea Telefono-liburua
 Kalkulagailua Jokoak
 Agenda
 Posta elektronikoa
 Interneterako Sarbidea (WAP)
 Bestelakoak...

7.- Azkeneko 6 hilabeteetan, zenbat melodia jarri dituzu zure sakelako telefonoan?

- Bat Lau
 Bi Bosto edo gehiago
 Hiru

8.- Zergatik aldatuko zenuke sakelako telefonoa?

- Oraingoa hautsi edo matxuratu delako
 Marka hobea duen beste batez
 Prestazio hobekak dituen beste batez
 Bestelakoak...

9.- Zenbat testu-mezu bidaltzen dituzu?

- Bat edo bi hilabetean 5 - 10 egunean
 Bat astean 11 - 20 egunean
 Bat egunean 21 - 30 egunean
 2 - 5 egunean 31 edo gehiago
 31 edo gehiago egunean

10.- Testu-mezu gehienak nori bidaltzen dizkiozu?

- Nire mutil-lagunari/neska lagunari
 Nire lagunik onenari
 Bestelako lagun edo ezagunei
 Guraso eta senideei
 Bestelakoei...

11.- Testu-mezuak erabiltzen dituzun arrazoiak zein dira?

- Denbora pasatzea
 Nire gauzez hitz egitea
 Hitzorduak egitea
 Ongi sentiarazten nau
 Informazioa eskuratzea
 Telefono bidezko elkarrizketa saihestea
 Nire emozioak adierazten laguntzen dit
 Harremanetan egotea
 Bestelakoak...

12.- Esku libreko sistemak edo aurikularrak erabiltzen al dituzu?

- Bai Ez

13.- Leku publikoetan sakelako telefonoaren erabileraren debeku edo murrizketari kasu egiten diozu?

- Bai Ez

14.- Gidatzen duzunean, motorrean edo txirringan joaten zarenean telefonoz hitz egiten al duzu?

- Bai Ez

15.- Sakelako telefonoa piztuta eraman ohi duzu gorputzetik gertu (poltsiko batean, gerrikitik eskegita...)?

- Bai Ez



Inkesta banatu ondoren, datuak tabulatu behar dituzue eta ondorioak atera behar dituzue. Ondoren, ikasgelan azalduko dituzue. Jarraian, eta azaldu dituzuen datuen bidez, eztabaidari ekin ahal izango diozue.

Tabulatutako datuak aurkezteko proposamena luzatu nahi dizuegu:

INKESTATUTAKO PERTSONA KOPURUA:
GIZONAK **EMAKUMEAK** **ADIN-TARTEA**

1. galdera: Zenbat sakelako telefono dituzu?

Sakelako telefono bat	%
2 sakelako telefono	%
3 sakelako telefono	%
4 sakelako telefono	%
5 sakelako telefono edo gehiago	%

2. galdera: Zer tarifa-mota duzu?

Kontratua duten pertsonak	%
Aurre-ordainketako txartela duten pertsonak	%

3. galdera: Sakelako telefonoa erostean zer da garrantzitsuena?

Marka	%
Diseinua	%
Neurria eta pisua	%
Bateria	%
Mezuak	%
Salneurria	%
Akzesorioak	%
Soinuaren kalitatea	%
Bestelakoak... (adierazi zein)	%

4. galdera: Zein maiztasunez erabiltzen duzu zure sakelako telefonoa?

Hilabeteetan behin edo birritan	%
Asteetan behin	%
Egunean behin	%
Egunean 2 – 5 aldiz	%
Egunean 5 – 10 aldiz	%
Egunean 11 – 20 aldiz	%
Egunean 21 aldiz edo gehiago	%

5. galdera: Zenbat gastatzen duzu hilabeteetan?

22 euro edo gutxiago	%
23 eta 44 euro bitartean	%
45 eta 66 euro bitartean	%
67 eta 87 euro bitartean	%
88 eta 100 euro bitartean	%
100 euro baino gehiago	%

6. galdera: Sakelako telefonoaren zein funtzio erabiltzen dituzu gehien?

Deiak	%
Mezuak bidaltzea	%
Kalkulagailua	%
Agenda	%
Posta elektronikoa	%
Iratzargailua	%
Telefono-liburua	%
Jokoak	%
Interneterako Sarbidea (WAP)	%
Bestelakoak ... (adierazi zein)	%

7. galdera: Azkeneko 6 hilabeteetan, zenbat dira zure sakelako telefonoan jarri dituzun melodiak?

Bat	%
Bi	%
Hiru	%
Lau	%
Bost edo gehiago	%



8. galdera: Sakelako telefonoa aldatuko zenuke arrazoi hauek direla-eta:

Oraingoa hautsi edo matxuratu da	%
Marka hobea duen beste bat hartzeko	%
Prestazio hobek dituen beste bat erosteko	%
Bestelakoak...	%

9. galdera: Zenbat testu-mezu bidali ohi dituzu?

Hilabetean 1 edo 2	%
Astean 1	%
Egunean 1	%
Egunean 2 – 5	%
Egunean 5 – 10	%
Egunean 11 – 20	%
Egunean 21 – 30	%
31 baino gehiago egunean	%

10. galdera: Testu-mezu gehienak nori bidaltzen dizkiozu?

Nire neska-lagunari/mutil-lagunari	%
Nire lagunik onenari	%
Bestelako lagun edo ezagunei	%
Guraso eta senideei	%
Bestelakoak...	%

11. galdera: Testu-mezuak erabiltzen dituzun hiru arrazoi nagusiak zein dira?

Denbora pasatzea	%
Nire gauzez hitz egitea	%
Hitzorduak egitea	%
Ongi sentiarazten nau	%
Informazioa eskuratzea	%
Telefono bidezko elkarrizketa saihestea	%
Nire emozioak adierazten laguntzen dit	%
Harremanetan egotea	%
Bestelakoak...	%

12. galdera: Esku libreko sistemaren bat edo aurikularrak erabiltzen al dituzu?

Esku libreko sistema	%
Aurikularrak	%

13. galdera: Leku publikoetan sakelako telefonoaren erabileraren debeku edo murrizketari kasu egiten al diozu?

Bai	%
Ez	%

14. galdera: Edozein ibilgailu-mota gidatzen duzunean sakelako telefonoz hitz egiten al duzu?

Bai	%
Ez	%

15. galdera: Sakelako telefonoa piztuta eraman ohi duzu gorputzetik gertu (poltsiko batean, gerrikotik eskegita...)?

Bai	%
Ez	%

4. FITXA: «SAKELAKO TELEFONOAREN MINTZAIRA»

Jarduera hau oso entretenigarria izango zaizue, sakelako telefonoaren bidez erabiltzen duten mintzaira berriaren fenomenoaz aztertu beharko duzue (ziur aski zuek ere sistema hauetakoren bat erabiltzen duzue). Horrela, honako informazioa jasoko duen sakelako hiztegia egitea proposatu nahi dizuegu:

- Testu-mezuetan gehien erabiltzen dituzten esamoldeak eta horien esanahiak.
- Erabiltzen dituzten arau gramatikalak edo ortografiakoak.
- Gehien erabiltzen dituzten begitarreak eta horien esanahia.

Horretarako gehien erabili ohi dituzuen esamoldeak bildu beharko dituzue. Gainera, Europako Batasuneko beste herrialde batzuetan erabiltzen dituzten esamoldeak eta baita begitarreak ere zein diren ikertu ahal duzue (ingeles eta frantsesaren ikasgaia).



4. DENBORA-PASAK

I. LETRA-ZOPA

Letra-zopan honako hitzak aurkitu itzazu:

ANALOGIKO, TXAT, ESTALDURA, EMOTIKONOA, IMEI, ERAMANGARRITASUNA, ERRADIAZIO, SMS, WAP

E	A	B	C	D	F	E	R	G	U	A	R	R	S	A	T	R	E	T	A
M	A	S	D	W	E	Q	R	T	Y	H	G	B	N	A	S	E	R	N	L
O	L	O	P	A	S	D	E	R	T	Y	Z	A	S	W	A	E	U	A	E
T	A	E	I	O	T	X	A	T	U	J	P	G	H	E	A	S	H	E	D
I	A	M	I	A	A	A	Q	E	R	L	O	P	C	D	A	Q	E	R	T
K	A	R	E	Q	L	J	U	I	L	O	P	G	R	T	E	O	P	Q	A
O	C	D	J	S	D	E	Q	E	S	C	E	E	I	O	N	N	P	S	U
N	E	O	H	E	U	M	U	U	E	E	N	R	M	C	P	A	O	A	N
O	P	R	A	O	R	Y	I	Q	A	T	R	O	U	E	A	D	R	L	T
A	S	D	R	M	A	A	E	O	S	A	O	G	T	N	T	E	H	A	O
D	E	E	E	E	R	O	S	L	G	E	C	I	Y	E	A	U	O	M	E
E	I	L	M	B	A	M	R	N	A	E	S	O	A	G	R	S	M	S	S
R	C	A	O	A	T	I	A	R	R	Q	I	E	N	N	E	Q	Y	E	A
F	I	T	S	S	H	M	I	R	B	E	A	T	A	E	M	E	L	T	M
H	D	R	U	O	A	I	A	E	E	O	P	E	L	R	O	M	L	N	B
Y	R	E	N	R	S	D	R	M	S	S	B	A	O	E	S	O	A	A	R
U	O	G	E	I	I	D	A	O	O	E	C	U	G	B	U	L	T	T	E
K	M	E	B	A	I	I	M	C	N	S	E	Q	I	O	N	O	E	S	S
I	O	D	Z	U	S	R	I	A	O	E	S	M	K	N	P	S	N	E	U
O	C	I	R	Q	A	R	C	A	S	B	E	S	O	E	O	A	E	B	E
L	O	I	B	I	B	U	A	S	A	I	O	E	B	I	C	Y	W	A	P

2. HITZ GURUTZATUAK

Ezker eskuin:

1. Kode baten bidez telefonoaren erabilera edo bere funtzio batzuk bertan behera uztea ahalbidetzen duen funtzioa.

2. Operadore baten zerbitzuak zuk horrela nahi duzulako edo kontratuaren baldintzak bere ez dituzuelako jasotzeari uztea.

3. Deiak beste telefono-zenbaki batean jasotzea sakelako telefonoaren aukera da.

4. Telefono-zenbakiak gordetzeko telefono-terminalek duten gaitasuna da


Goitik behera:

1. Telefono-zenbakiak, horiek eskuratzeko, gorde daitezkeen sakelako telefonoaren memoria da.

2. Deia hartzaileak sakelako telefonoa erabilgarri ez duenean edo deia hartu ez duenean mezuak grabatzea ahalbidetzen duena. Operadoreak hartzaileari ohartarazten dio mezuak dituela. Zerbitzua doakoa ala ez izan daiteke.

3. Bateriaren karga berritzen du bere edukiera agortu ondoren.

4. Oinarrizko eta sakelako telefonia edo interneteko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak dira. Irrati-maiztasuna igortzeko sarea dute.



3. TESTA: ERRADIAZIOEN AURREAN, ONENA PREBENITZEA DA

Erradiazioei dagokienez, sakelako telefonoen segurtasunari buruzko hainbat kontu aurkeztu nahi dizkizuegu. Egokia irizten diozu aukera erabili eta erantzunak egiaztatu.

ERRADIAZIOEN AURREAN, ONENA PREBENITZEA DA

1. Aurikular egokituak edo esku libreko sistema erabiltzea honetarako...

- ...telefonoa buru eta gorputzetik urruti mantentzea.
- ...energia eta, ondorioz, dirua aurrezte.
- ...sakelako telefonoaren bidez elkarrizketa luzeak izatea.

2. Telefonoa zain dagoenean, erradiazioak ere igortzen ditu?

- ...ez, hitz egiten duzunean bakarrik igortzen ditu.
- ...bai, txikiagoak diren arren, horiek ere garrantzitsuak dira.
- ...sakelako telefonoaren bateriaren iraupenaren arabera da.

3. Eta gauean, zer egin behar dut sakelako telefonoarekin?

- ...kargatzen jarri.
- ...itzaltzea, ez baldin badugu deirik itxaroten.
- ...beti piztuta izan behar dugu.

4. Estaldura gutxi duen leku batetik pasatzean onena honakoa egitea da...

- ...telefonoa itzaltzea.
- ...normaltasunez erabiltzea, estaldurarik dagoenean ez da arazorik egoten.
- ...ez erabiltzea, dei bat egitean igortzen dituen emisioen potentzia handitzen da.

5. Oro har, prebenitzeko onena honakoa da...

- ...sakelako telefonoa ez duzu bihotzaren ondoan edo poltsikoetan, izterraren ondoan, eraman behar.
- ...bateria urtero aldatu behar duzu hondatzen hasi baino lehen.
- ...sakelako telefoniako antenak dauden eremu batetik hurbil pasatzen garenean ez duzu sakelako telefonoa erabili behar.

6. Deia egiten dugunean itxaroteko une batzuk daude konexioa egiten duten bitartean, une horietan

- ...telefonoak igortzen dituen emisioek hitz egitean baino intentsitate txikiagoa izaten dute.
- ...telefonoak potentzia handiagoa duten emisioak egiten ditu, horregatik, belarrira hurbildu baino lehen hobe da segundo batzuk itxarotea.
- ...bateriaren desgastea handiagoa izaten da, hobe da erantzun behar dutela dakigunean deitzea.

7. Azkenik, hegazkin batean zaudenean edo ospitale batean zaudenean...

- ...hitz egiten duzuen jendeari enbarazu ez egiten saiatu behar duzu, gogoan izan garrasiak kutsadura akustikoa direla.
- ...ez erabili, ospitalean edo hegazkinean dauden tresnek sakelako telefonoaren bateria hondatu dezatela saihesteko asmoz.
- ...sakelako telefonoak erabiltzeko debeku eta murrizketei kasu egin behar diezu. Izan ere, beste tresna edo sistema batzuekin interferentziak egotea saihesten duelako.



4. ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK

Sakelako telefonoaren erabilera orokortu da gure herrialdean. Egun sakelako telefonoa erabiltzen dutenak finkoa erabiltzen dutenak baino gehiago dira. Sakelako telefonoarekin lotutako abantailak desabantailak zerrendatzeko gauza izango zinateke?



5. EZETZ ASMATU!

Zure sakelako telefonoa aukeratzeko orduan kontutan hartu behar dituzun kontu batzuk ezagut itzazu:

Sakelako telefonoen sareek maiztasun ezberdinak erabiltzen dituzte. Espainia eta Europan bi dira: 900 eta 1.800 MHz. Egun merkaturatzen dituzten telefono guztiak dualak dira, eta operadoreek biak erabili ditzakete. Estatu Batuetan sakelako telefonoak beste bat erabiltzen du: 1.900 MHz. Hiruretan funtzionatzen diren telefonorik ere badago, eta Amerikara maiz joaten baldin bazara horixe izango da gehien interesatzen zaizuna.

1

2

Sakelako telefono batez gozatzeko ezinbesteko alderdia da. Zenbakia markatzea erraza izan behar da (ahotsa ezagutzea telefonoan maneiatu beharra saihestuko dizun abantaila izan daiteke), nabigazioa eta menuen egitura logiko eta argiak izan behar dira, eta doikuntza eta funtzio guztiak eskuliburuan begiratu behar izan gabe aurkitu behar dituzte. Gehien egiten dituzten eragiketak, telefono-liburuan sartzea, zenbaki bat grabatzea edo isiltasun-modua aktibatzea esaterako azkarrak eta errazak izan behar dira, bost minutatik igaro beharra egongo ez delarik.

Bezeroak hileko kostua ordaintzen du, deietara itzul daitekeena ala ez, eta egiten dituen deiak ordaintzen ditu. Deien salneurria txikiagoa izaten da eta zerbitzu gehiago daude beste aukeren aldean.


3





5. DENBORA-PASEN SOLUZIOAK

I. LETRA-ZOPA




2. HITZ GURUTZATUAK

Ezker eskuin:

1. BLOKEO
2. BAJA
3. DESBIRAPEN
4. MEMORIA

Goitik behera:

1. AGENDA
2. AHOTS-POSTONTZI
3. KARGATZAILE
4. OPERADORE



3. TESTA: ERRADIAZIOEN AURREAN, ONENA, PREBENITZEA DA:

- 1) a; 2) b; 3) b; 4) c; 5) a; 6) b; 7) c



4. ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK

ABANTAILAK

- Aurkitzeko moduan egotea eta deitzea behar izanez gero.
- Lagunekin harreman gehiago izatea eta elkarrizketetan pribatutasun handiagoa izatea.
- Gurasoen lasaitasuna, batez ere gauean ateratzen zarenean.

DESABANTAILAK

- Arriskutsua gidatzean.
- Arriskua osasunerako.
- Erroreak fakturatzeko edo arazoak txartelekin.
- Sakelako telefonoarekiko menpekotasuna.

5. EZETZ ASMATU!

1 BANDAK

2 ERGONOMIA

3 HILEKO KONTRATUA

6. UMORE GRAFIKOA

Hauek dira aukeratu ditugun zenbait komiki-banda⁽¹⁾. Zuk ere beste batzuk bila itzazu. Banaka edo taldeka egin dezakezue.



⁽¹⁾ www.telefonos-moviles.com



ERANSKINA

Inkesta honi erantzun iezaiozu. Inkesta zure lagun eta senideei ere eman iezaiezu. Orain asko dakizula gai honen inguruan, emaitzak azter itzazu eta atera ondorioak.

INKESTA

Adina: **Sexua:** **Hezkuntza maila:**

- 1.- Zure sakelako telefonoz hitz egiten duzunean, honakoa saiatzen zara:
 - a) Belarritik ahalik eta gertuen jartzen ongi entzuteko.
 - b) Aurikular egokituak edo esku libreko sistema erabiltzen.
 - c) Sakelako telefonoa belarritik gutxienez 3 zentimetro urrutiratzen.
- 2.- Sakelako telefonoa itxaroten dagoenean, zer egiten duzu?:
 - a) Poltsikoren batean eramaten dut.
 - b) Gerritik eskegitzen dut.
 - c) Gorputzari ez eramaten saiatzen naiz eta deiak ez baditut itxaroten itzaltzen dut.
- 3.- Edozein ibilgailu-mota gidatzen duzunean sakelako telefonoa erabili ohi duzu?:
 - a) Bai, esku libreko sistema edo aurikular egokituak ditudalako.
 - b) Bai, ez dut inoiz hori egiteko arazorik izan.
 - c) Ez, gidatzen baldin badut itzalita eramaten dut edo, bestela, egoki den eremu batean gelditzen naiz horren bidez hitz egiteko.
- 4.- Ospitale edo hegazkin bezalako leku publikoetan sakelako telefonoaren erabileraren inguruan dauden debeku eta murrizketei kasu egiten al diezu?:
 - a) Ez diet inoiz murrizketa edo debeku horiei begiratzen.
 - b) Bai, telefonoa berehalaxe itzaltzen dut.
 - c) Bai, sakelako telefonoari soinua berehala kentzen diot eta bibragailu-moduan jartzen dut.
- 5.- Zure sakelako telefonotik dei bat egiteko edo beste bati erantzuteko ematen duzun denbora honakoa izaten da:
 - a) Ahalik eta laburrena.
 - b) Ahalik eta laburrena tarifa murriztuaren ordu-tartean ez badin bada sartzen edo, bestela, denborako mugarik gabe solasaldia tarte horretan egitekotan.
 - c) Telefono bidezko solasaldiei ez diet denbora-mugarik jartzen.
- 6.- Sakelako telefonoa estaldura baxua duenean, honakoa egiten saiatzen zara:
 - a) Ez duzu erabiltzen.
 - b) Hitz egiten jarraitzen duzu elkarrizketa noizean behin mozten bada ere.
 - c) Hitz egiten jarraitzen duzu eta mugitzen saiatzen zara estaldura hobea hartzeko asmoz.
- 7.- Sakelako telefono bat erosten duzunean, Erradiazio txikia ematen duen modeloa aukeratzen al duzu?
 - a) Ez, neurri eta pisuari begiratzen diet batez ere.
 - b) Sakelako telefonoak dituen prestazioei bakarrik begiratzen diet.
 - c) Bai, erradiazio txikiena erosten dut beti.

Lortzen dituzun emaitzen arabera, hausnarketa egin eta horri jarraituta jardun ezazu. Ez al duzu uste gaiari buruzko informazioko kanpainaren bat egitea ongi egongo litzatekeela? Lanean jarri berriro. asmatu metodo bat eta ikasi duzuna zabal ezazu (eztabaida-lekuetan edo zure web orrian esaterako).

